

AZKOITIA / Juan Carlos Alonsok hirugarren hitzaldia emango du liburutegian

Ipuinei eta emozioei buruzko azken saioa hilaren 25ean izango da; urriaren 23an literatur solasaldia egingo dute

Azkoitia. I. Elorza

Azkoitiko Aizkibel Udal Liburutegian bi ekitaldi antolatu dituzte urrirako. Batetik, eta hileroko usadioarekin jarraituz, literatur solasaldia egingo dute urriaren 23an, ostegunez, 19:30ean, liburutegian bertan.

Bestalde, urriaren 25ean, larunbatean, Juan Carlos Alonso psikologo eta orientatzaileak hitzaldia emango du bertan, 11:30ean hasita. Ipuina eta emozio hizkuntza izeneko hitzaldia izango da eta iaz Aizkibel Liburutegian eman zituen beste bi hitzaldien jarraipena izango da. Hirugarren saio hau multzo honetako azkena izango dela jakinarazi dute liburutegiko arduradunek.

Aurreko saioetan bezalaxe, sarrera doakoa izango da eta herritar guztiei parte hartzeko deia egin diete.